

Urdina kolore beroa da

**Maiden Iantzi
Goienetxe**

Maitasuna urdina da Clementinerentzat. Neska bikote batekin gurutzatu eta ilea urdinez tindatua zuenak irribarre egin zionetik (Clementinek burua jaitsi zuen) dena berria da berarentzat eta deskubritzeko eta ikasteko ilusioz egiten du aitzinera. Laster ile-urdina ezagutzen du, Emma, eta (bigarren) topaketa hagitz berezia da bientzat. Ordutik elkar maitatzen dute, intentsitate handiz, oraindik jendarteak eta Clementinek berak homosexualitateaz dituzten aurreiritzien gainetik. Julie Marohren komi-

kiak “Urdina kolore beroa da” izen aproposa du, ederki transmititzen duelako marrazkiz marrazkiugar hori. “Adele-ren bizitza” filmaren inspirazio izan zen liburu grafiko horrekin disfrutatzen ari naizenez, urdinari buruz ikertzeko go-goa piztu zait eta Oskar Gonzalez iker-tzaileak “Zientzia Kaiera”-n idatzitako artikulu eder batekin egin dut topo. “Urdinean blai” du izenburua eta kolore hau, zientziaren ikuspuntutik, espektro elektromagnetiko baten tarte bat bertzerik ez dela azaltzen du, 460 eta 495 nanometroen artekoa. Baina txikitasun

horretan nahi adina ñabardura sartzen dira. Itsasoaz haraindiko urdina Afganistango meatzeetan sortu eta Italiara iritsi zen Erdi Aroaren bukaeran. Urdin egiptoarra duela 4.000 urte sortu zen eta ezin hobeki ailegatu zaigu. Urdin kobaltoa ere egiptoarrei zor diegu. XVIII. mendean Prusiako urdina aurkitu zuten ezustean, eta 1980an urdin zeruleoa egin zen ezagun. Gonzalezek dioenez, kimikaren historiaren eragile liluragarria da urdina. Erantsiko nuke kimikaren sortzailea ere badela eta itzela dela norberak bere urdina asmatzea. •

Irakokizunak

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Santa eskea ez al da ohitura polita galtzen uzteko?». «Aurten antolatatu al da zerbait inauterien harira? Festetan haurrentzako ekintza gehiago antolatu beharko lirateke». «Ongi daude herriko udaleku irekiak, e, baina udako hilabete bateko eskaintzak urte osorako zabalpena beharko luke, festetan haur jolasak antolatzen dituztenak ardura daitezke horretaz, ezta?». «Pintxo poteoa erabat moztu du errepresaliatu politikoen aldeko azken ostiraletako elkarretaratzeak».

Proposamen edo iradokizun itxuran mozorrotutako eskaera, agindu, exijentzia, inposizio andana entzuten ditut

eguna joan eta eguna etorri. Normalean, herriko aisialdiaz oso irudi zehatza dutenengandik etortzen dira: badakite zer nahi duten, nola egin behar diren gauzak, zein balio sustatu behar diren... Baina, ai, ez daude prest irudikatzen duten hori posible izan dadin zirkinik ere egiteko. Arrazoiak? Asko izan daitezke: euren lanarekin badute nahikoa, haurrak zaindu behar dituzte, ez daukate ardurarik hartzeko gogorik eta gaitasunik ez dutela esanez disimulatu nahi izaten dute.

Eta ez dira ohartzen eskatzen duten hori guztia, noizbait egin bada, borondate handiz eta musu truk lanean aritu

den jendeagatik izan dela. Eta musu truk ez bada ere, “liberazio” kontzeptuaren barruan sartzen den prekarietate erabateko ordainsariaren trukean izan dela. Lehendik ere ardurak hartzeko prestasuna duen jendeari esker izaten dela. Soldata jasotzea ahalbidetzen dion enpleguaz gain, egunean libre izan ditzakeen gainerako orduak lanez betetzea axola ez zaion jendeari esker izaten dela. Seguru asko, horregatik erretzen naute iradokizunez mozorrotutako eskaerek, Twitterren jaurtitzen diren galdera serioek, edo ezer egin gabe besteek boluntarismoaz egiten dutena kritikatzeko zenbaiten ziurtasunak. •